

Distantzia 11,2 km	Desnibela 690 m	Iraupena 4h00	Tipologia Itzulua	Zedarriak PR seinaleak (horia)
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgebidea), D918 segitu Azkaineko norabidean. Azkaineko hiri-barnera joan. Herriko Etxeko eta elizako plazan, ezkerrera joan, Sarako norabidean (D4). Santinazio lepotik iragan eta Sarara jaitsi. Lehen biribilgunean, eskuin hartu Bera aldera (D406). 400 m urrunago, ezkerrera joan "Sara" eta "Saltegiak" aldera, ibilgailua patarraren puntan uzteko, igerilekuko aparkalekuan.

GPS datuak: **UTM : 615198 - 4796592 Lat/Long : 43.31333/-1.57944**

Sararik abiatuz, Larrun mendiko isurialde ezezagun batean, hona ibiltari trebatuendako ibilaldi ederra. Panoramikoa Iturriederreta lepora hurbiltzerakoan, ibilbidea mendikoa bilakatzen da (baina erraz) Urkilako arraila iragatearekin, Fageko goi-zelaian eta Olhaingo muinoetan goxoan ibili aitzin.



1. ZATIA > Saratik Basaburuko gainaldeetara

UTM: 615198 - 4796592

Sarako aparkalekutik (70 m), aitzina zaitetz elizara buruz eta itzul eskuin elizaren eta Herriko Etxearen artean errebotera heltzeko. Igerilekuaren eskuinetik pasatu oinezko bidea aurkitzeko, karabanendako aparkalekura iristen dena. Aparkalekuaren ezkerretik ibili (50 m-tan), eta D406 errepideko bidegurutzera zuzurki zeharkatu, parean den bidea segitzeko, Basaburua auzora igotzen dena. Azken bihurgunean, pareko kanadar pasabidearen gainetik iragan eta, azaltzen diren bi bidexketatik (Aldunberria), eskuinekoa hautatu. Zuhaitzen azpitik igotzen da lepo ttipi bateraino (jabeago pribatua): ezkerrera joan, lehen bidean. Oihanetik ateratzen da lur muino panoramiko baten heinean, eta eskuineko mendi gainetik doa.

2. ZATIA > Altsangako kasko borobilduetatik Iturriederreta lepora


UTM: 613981 - 4796419

Y itxurako lehen bidegurutzan (210 m), ezkerreko bidexka hartu kasko borobildu luze bat igotzeko (urtegi baten ondotik pasatu). Gorago, zati belartsu eta eztiago batetik iragan, eta azken patar zut batera heldu: zuzen igo bidexka harritsuan, gero lurrezkoa bilakatzen dena. Igoaldi zuzen honen ondotik, laugune batera heldu, nondik Larrun gailurra eta Donibane Lohizuneko itsasadarra ikusten diren. Ezkerreko bidexka belartsuan segitu, goi-zelairantz (513 m, pinu zenbait), Larrungo burdinbidera iristeko zeharkatzen duguna. Burdinbidearen ezkerretatik ibili, 1 km-tan, Altsangako hego-isurialdean.

3. ZATIA > Athekaleuneko hego-ipar zeharkatzea, Urkilako arrailatik

UTM: 611593 - 4796656

Iturriederreta lepoan (543 m), 141 zk. zutabearen heinean, burdinbidea utzi, horiz seinalatutako bidexka hartzeko ezker, iratze artean, elektrizitate linearen justu eskuinetik igotzen dena. Bidexka linearen azpitik pasatzen da, zuhaitz arraxindun landa baten zokoan, eta mendi gain arrokatsu batean agertzen den lepora zuzen segitzen du. Urkilako arraila iragan (715 m) eta bestaldeko isurialdeko bidexka bakarrean jaitsi, pudinga mokorren artetik. 5 m urrunago, T itxurako bidegurutzan, bidexka ezkeraldera jaitsi. Abere hespilaren heinean, zuzen segitu, iratze eta otean artetik, goi-zelai belartsuaren aldera (seinaleak ongi segitu).



4. ZATIA > Fageko pentzeetatik Olhaingo kaperara

UTM: 612012 - 4795014

Fageko artzain-zelaiaren sarbidean, Y itxurako bidegurutzan (560 m), eskuineko bidea hautatu. Laugune batetik iragan, eta pareko ibar-zuloan jaisten hasi (Espainiako ikuspegia), eskuineko bi bidexkei kasurik egin gabe. Arrokak agertzen diren heinean, ezkerrera joan lurrezko bidexkan. Lur muino baten ondotik (Ibantelirako ikuspegia), bidexkak mendi gain arrokatsuaren hego-isurkiaren mazela zeharkatzen du. Puntan (450 m), pinu eta haritz oihan baten azpitik eskuin pasatu, gero bidexka ezkerrera baztertzen da beste ibarxka bat topatzeko eta lepo batera jaisteko.

5. ZATIA > Olhaingo kaperatik Uhaldeko ibarxkara

UTM: 613154 - 4794493

Olhaingo kaperaren azpian kokatutako lepoan (348 m), joan-etorri bat egin daiteke aurrietaraino edo atsedean hartu eskuinean den arditegi ederraren ondoan. Ezkerrean jaitsi bide onetik. Eskuin aldean den bordari kasurik ez egin, eta, erreka zeharkatu eta gero, bidexka gordean eskuin hartu; erreka baxterretik doa eta gero errekatik urruntzen da urratsez urrats. Etxegarai bide harritsu bihurgunera heldu (Sararako ikuspegia): parean jaitsi mundrunezko bidera heldu arte (aparkalekua), 300 m-tan eskuinaldera jaisten duguna.

6. ZATIA > Sarara itzultzea

UTM: 613693 - 4795030

Bordarekiko pentzearen heinean (181 m), mundrunezko bidea utzi, ezkerrean duzun bide gorri iluna hartzeko (Y itxurako bidegurutzan berriro ezker). Harri altxatutako hesi ederraren bazterretik doa, eta herrikka batera jaisten da. Eskuineko bidean jaitsi, eta, T itxurako bidegurutzan (eztitegia), jaitsiera ezker segitu, ezkerretik datozen bi bide utziz, horien artean Lezabeko zubi lauzatu ederra. D406 errepidean zarelarik, Sararako bidea segitu ezker. Zubiak pasatu eta, eskuineko bazter zabalek platanoen azpitik ibiltzeko bidea ematen dizute. Karabanen aparkalekuan, igerilekura igotzen den oinezko bidea berriz harrapatu eta Sarako plazara helduko zara.

INTERESGUNEAK

❖ Txilar kantauriarra (1,5 km)

Txilar aldaera ugariren artean, eskual mendietako lur azido, eguzkitsu eta hezeetan, Daboecia cantabrica landarearen presentzia ohartzen gara, erikazeoen edo ainarren familiako landarea. Arrosa bizi koloreko eta girgil itxurako loreak dauka ezaugarritzat, oso ezti-emaileak.

UTM: 613922 - 4796459

❖ Platanoa (4,1 km)

Iturriederreta lepoan, burdinbidearen ondoan, platano eder batek itzal pixka bat ekartzen die ardi latxei... edo Pirinioak zeharkatzera doazen GR10 bideko ibiltariei. Euskal Herrian anitz hedatua den zuhaitza da.

UTM: 611585 - 4796647

❖ Olhaingo kaper aurrutia (7,8 km)

Lepo hartatik, gailurra igotzeko aukera duzu eskuinaldean (15 mn J/E). Gailurrean, kaper handi baten aztarnak aurkitzen dira (20 m luze), XVIII. mende hastapenean ermita baten aterpe izan omen zena.

UTM: 613154 - 4794493

❖ Larrungo tren (3,2 km)

Hemen, Larrungo trenaren elektrika-trakzioko kremailera trenbidera iristen gara, 1924an estreinatua, garaiko tren-ilarak gora eramaten dituena, lepotik gailurra, 4,2 km-tan. Erabilitako ekaiki diru Pirinioetako izaia teilatutako, Landetako pinua zoladurarako, Ariège-ko gaztainondo zurezko estaldurarako

UTM: 612463 - 4796677

❖ Sarako kaperak (10,3 km)

Sarako herriak kaper ugari dauka, saildu bati eskaintako erlisione-erakuntza ttipiak. Tradizioak dionez, XVII. mendean eraikiak izan ziren, Sarako arantzaleek eskaturik.

UTM: 614462 - 4795882

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Sara, D406 gurutzatzea
UTM: 614824 - 4796397

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Sara, saltegi eta zerbitzu guziki
UTM: 615135 - 4796518

- Sara, igerilekuko aparkalekua, komunak eta ur gunea
UTM: 614931 - 4796450

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarritueta.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereizi itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.